# JASANGARRITASUN-FAKTOREEN GAINEKO INBERTSIO-ERABAKIEN KONTRAKO GORABEHERA NAGUSIEI BURUZKO ADIERAZPENA

**FINANTZA-AHOLKULARIA: KUTXABANK SA – LEI: 549300U4LIZV0REEQQ46**



## LABURPENA

KUTXABANK SAk, LEI 549300U4LIZV0REEQQ46, Aholkularitza Zerbitzu Ez Independentea eskaintzen die bere bezeroei. Zerbitzu horrek gomendio pertsonalizatuak ematen ditu finantza-tresna bati edo gehiagori buruz, bezeroak inbertsio-erabaki bat hartzeko. Oro har, zerbitzuak barne hartzen ditu nagusiki Kutxabank Gestión S.G.I.I.C. SAUren inbertsio-fondoak.

Jarraian azaltzen da Aholkularitza Zerbitzu Ez Independenteak Kutxabank Gestioneko fondoen bidez bideratzen duen inbertsioaren jasangarritasun-faktoreetan izandako kontrako gorabehera nagusiei buruzko adierazpena. Era berean, ezarritako helburuak lortzeko hartutako neurriek kudeaketa-sozietate honen jarduketari dagozkio. Zehazki, jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera nagusiei buruzko adierazpen hau dagokio 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko erreferentzia-aldiari.

2023ko ekitaldian, Kutxabank Gestión sozietate kudeatzaileak (haren fondoak inbertsio nagusia dira Aholkularitza Zerbitzu Ez Independentean ) kontuan izan ditu 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delegatuaren I. eranskineko 1. koadroko kontrako gorabeheren adierazleak (nahitaezkoak) eta 2. eta 3. koadroetako batzuk (boluntarioak), hainbat modutan, inbertsio-erabakiak hartzeko:

- Inbertsio-unibertsoaren hasierako iragazkia, bazterketa-zerrendaren bidez, nazioarteko jokabide-kode arduratsu nagusiak jasoz.
- Adierazle horiek aktiboak (akzioak, zorra) hautatzeko prozesuan integratzea, eta konbinatzea erabakitzeko prozesuan alderdi finantzarioak eta jasangarritasunari lotutakoak.
- Zorroa osatzeko prozesua: zorroaren barruko pisuaren amaierako esleipena, jasangarritasun-irizpideen arabera (bai barruko mugen bidez, bai erreferentziazko indizeekin alderatuta).
- Arriskuen kontrola: aipatutako adierazleak zorroek hartutako arriskuak kontrolatzeko prozesuaren parte dira.
- Klima-aldaketaren arriskuaren kontrol espezifikoa: azken urteetan, PACTA tresna erabili da, kudeatzailearen maila bateratuan, klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioan ezarritako helburuekiko lerrokatze-maila aztertzeko. Hala ere, aurrera begira, kontratatu egin da estaldura sektorial handiagoa eta analisi eta datu sakonagoak erabiltzen dituen tresna bat, arlo honi buruzko politikak finkatzeko. Tresna hori ezarriko da 2024an zehar.

- Inplikazio-politika modu aktiboan erabili da sozietate kudeatzailean Kontrako Gorabehera Nagusiak (KGN) jasangarritasun-prozesu globalean txertatzeko. Inplikazio-politika hori gauzatu da bai Botoaren aldetik (boto-irizpideek jasotzen dute KGNen inguruan behar den arretaren filosofia) bai konpainiekin jasangarritasun-gaiei buruz izandako Elkarrizketaren aldetik. Inplikazio Politika 2023an inplementatzeko txostena, haren bi alderdietan, jasota dago www.kutxabankgestion.es webgunean eskuragarri dagoen “2023 Boto eta Elkarrizketa ariketari buruzko txostena” dokumentuan.

### KGNak jasangarritasun-ereduan

| Mota | Eremua | Zutabea | Gaia | KGN | Adierazlea | Bazterketa | Integrazioa: Zuzenean | Integrazioa: Zeharka | Beste batzuk | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Derrigorrezkoak | Enpresak | Ingurumena | Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak | 1 | BEG isuriak | | | ○ | */** | 1) | BEG txertatzeko aukeratutako aldagaia BEG intentsitatea da, lehen 6 KGNak biltzen dituena, modu batean edo bestean. Gainera, ikatz termikoan jarduera handia duten enpresak baztertzen dira |
| | | | | 2 | Karbono-aztarna | | | ○ | */** | | |
| | | | | 3 | Karbono-intentsitatea | | ● | | */** | | |
| | | | | 4 | Erregai fosilekiko esposizioa | ◖ | | ○ | */** | | |
| | | | | 5 | Kontsumitutako eta produzitutako energia ez-berriztagarriaren %-a | | | ○ | */** | | |
| | | | | 6 | Kliman eragina duen energia-kontsumoaren intentsitatea | | | ○ | */** | | |
| | | | Biodibertsitatea | 7 | Biodibertsitatean eragin negatiboa duenaren %-a | ◖ | | ○ | */** | 2) | Harea bituminosoetan eta eskistoan parte hartzen duten enpresak baztertzen dira. Gainera, zeharkako eragina duten aldagaien ereduan (ura, hondakinak, karbonoa) |
| | | | Ura | 8 | Ur-isurien intentsitatea | ◖ | ● | | */** | | |
| | | | Hondakinak | 9 | Hondakinen intentsitatea | | ● | | */** | | |
| | | Soziala | NBEren eta ELGAren printzipioak | 10 | Printzipioak urratzen dituztenen %-a | ● | | | */** | | |
| | | | | 11 | Betetze-politikarik gabekoen %-a | | | ○ | */** | 3) | Inplizituki, 10. KGNa betetzean |
| | | | Generoaren araberako soldata-arrakala | 12 | Generoaren araberako soldata-arrakala | | | ○ | */** | 4) | Zeharka, emakumeak zuzendaritza-postuetara sartzeagatik |
| | | | Genero-aniztasuna Administrazio Kontseiluan | 13 | Emakume kontseilarien %-a | | ● | | */** | | |
| | | | Arma eztabaidagarriak | 14 | Arma eztabaidagarriekiko esposizioa (%) | ● | | | */** | | |
| | Subiranoa | Ingurumena | Karbono-intentsitatea | 15 | Karbono-intentsitatea | | | ○ | */** | 5) | Herrialdearen ESG kalifikazioaren parte da |
| | | Soziala | Nazioarteko itunak, NBE printzipioak, eta abar urratzea | 16 | Nazioarteko itunak, NBE printzipioak, eta abar urratzea | | | ○ | */** | 6) | Herrialdearen ESG kalifikazioaren parte da eta zehatutako enpresak baztertzen dira |
| | Aktibo erréalak | Ingurumena | Erregai fosilekiko esposizioa | 17 | Erregai fosilekiko esposizioa | | | | e/d | 7 | Aktibo erralik gabe |
| | | | Efizienteak ez diren energiekiko esposizioa | 18 | Efizienteak ez diren energiekiko esposizioa | | | | e/d | | |
| Boluntarioak | | Ingurumena | Isuriak. Karbono-isuriak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioak | 4 | Parisko Akordiora egokitzearren karbono-isuriak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehunekoa | | | ○ | */** | 1) | |
| | | Soziala | Lan-istripuak | 1 | Lan-istripuen prebentziorako politikak | | | ○ | ** | 8) | Laneko baldintzekin eta talentua atxikitzearekin lotuta, langileen errotazio-ratioa hartzen da kontuan |
| | | | | 2 | Istripuen ratioa (batez besteko haztatua) | | | ○ | ** | | |
| | | | | 3 | Galdutako denbora, istripuengatik eta abarrengatik. | | ● | | ** | | |
| | | | Zergak | 22 | EBrekin kolaboratzen ez duten jurisdikzioak (zergak) | ● | | | ** | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ● | Jasangarritasun-ereduan KGNa osorik biltzen da, aldagai berarekin | ○ | Jasangarritasun-ereduan KGNa osorik biltzen da, antzekoa den edo eragina duen aldagai batekin |
| ◖ | Jasangarritasun-ereduan KGNa partzialki biltzen da, aldagai berarekin | ◐ | Jasangarritasun-ereduan KGNa partzialki biltzen da, antzekoa den edo eragina duen aldagai batekin |
| * | Bai ingurumenaren aldetik, bai alde sozialetik, integrazio gehigarria barne-mugen bitartez: bonu berdeak, sozialak eta jasangarriak | | |
| ** | Inplikazio-politika bat dago –enpresekin hitz egitea eta botoa–, puntu horiek kontuan hartzen dituena | | |

Taulak jasotzen du nola hartzen den kontuan KGN bakoitza. Batzuetan, KGNren zati bat bakarrik hartzen da kontuan, eta hori "◐" batez adierazten da.

- **Baztertuak**: Erosi ezin diren jaulkitzaileak
- **Integrazioa**: Kontuan hartzen da inbertsioak eta arriskuak kudeatzean, gainerako finantza-aldagaiekin batera. **Zuzenean** izan daiteke, KGN aldagaia bera erabiliz, edo **zeharka**, antzeko aldagaien edo alderdien bidez. Beraz, espero izatekoa da Ingurumen, Gizarte eta Gobernantza politiketan (IGG) ondo jardunez gero, KGNn emaitza ona lortzea (*adibidez, karbono aztarna ez dago zuzenean ereduan, baina bai karbono-intentsitatea*).
- **Beste batzuk**: Integrazio gehigarria, honako hauen bidez: inplikazio-politikak, barne-mugak, bonu berdeak, sozialak, jasangarriak edo jasangarritasunari lotutakoak...

# JASANGARRITASUN-FAKTOREEN GAINEKO KONTRAKO GORABEHERA NAGUSIEN DESKRIBAPENA



| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1. laukia | | | |
| **Inbertitzen den enpresetako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak** | | | | | | |
| Jasangarritasun-adierazlea kontrako gorabeherei dagokienez | | Parametroa | Gorabehera 2023 | Gorabehera 2022 | Azalpena | Hurrengo erreferentzia-aldirako hartutako neurriak, aurreikusitako neurriak eta finkatutako helburuak |
| KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO BESTE ADIERAZLE BATZUK | | | | | | |
| Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak | 1. BEG isuriak<br><br>(tCO2e) | 1. eremuko BEG isuriak | 59.952,67 | 51.019,63 | 1. eremuko BEG isuriak: Zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainiek sortutako berotegi-efektuko gasen isuriak dira (konpainien kontrolpean dauden iturrietatik).<br>Datuaren kalkulua: Datua lortzen da Kutxabankek (aholkularitza ez-independentea) banatutako inbertsio-fondoak inbertituta dauden tresna guztien 1. eremuko isuri | Ingurumen-oinarria ondo jasota dago IGG ratinga esleitzeko barne-ereduan, berotegi-efektuko gasen gaiari dagokionez (BEG edo GHG –Green House Gases– ingelesez).<br><br>Gainera, jaulkitzaile bakoitzak ingurumen-arloan izango duen bilakaera ezagutzeko eta zorroak klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioaren helburuekin duen lerrokatze-maila neurtzeko, Kutxabank Gestionek erabili ditu hainbat klima agertoki prospektibo, esperientzia metatzeko eta erabil daitezkeen hurbilketak ikusteko.<br><br>Hala, hasieran aztertu zen jaulkitzaile garrantzitsu bakoitzaren aldagaien proiekzioa, haien plan estrategikoen |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | absolutuen baturatik (CO2 tona baliokideetan adierazita). | arabera, PACTA (Paris Alignment Capital Transition Assessment) metodologiaren bidez. Hala ere, ondorioa izan zen metodologia hori ez zela nahikoa, sektore batzuetara mugatuta zegoelako. Beraz, 2023aren amaieran eskuratu da Sustainalytics-en tresna bat (“Low Carbon Transition rating”), aldizka aztertzeko klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioaren helburuekiko bat etortzea, zorroz zorro, maila bateratuan. |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da 8.933 tona CO2, aurreko urtean baino % 17,51 gehiago. | |
| | | | | | Estaldura: % 37,29 vs % 15,47 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 141,05 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2. eremuko BEG isuriak | 12.534,59 | 13.383,50 | 2. eremuko BEG isuriak: Elektrizitatearen, lurrunaren edo beste energia-iturri batzuen kontsumoak sortutako berotegi-efektuko gasen isuriak dira, zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainien ekoizpen-katearen aurreko fase batean sortuak.<br>Datuaren kalkulua: Datua lortzen da Kutxabankek (aholkularitza ez-independentea) banatutako inbertsio-fondoak inbertituta dauden tresna guztien 2. eremuko isuri absolutuen baturatik ($CO_2$ tona baliokideetan adierazita). | |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da 849 tona $CO_2$, aurreko urtean baino % 6,34 gutxiago. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Estaldura: % 37,28 vs % 15,47 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 140,98 igo da. | |
| | | 3. eremuko BEG isuriak | 424.173,98 | 469.137,10 | 3. eremuko BEG isuriak: Zeharka sortutako eta 1. edo 2. eremukoek estaltzen ez dituzten berotegi-efektuko isuriak dira, zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainien balio-katean sortuak. Barne hartzen ditu katearen aurreko eta ondorengo faseetako isuriak, batez ere klima-aldaketan eta haren arintzean inpaktu handia duten sektoreetan. Zehazki, enpresaren produktuak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten bezeroek eginiko isuriak dira, eta produktuak fabrikatzen dituzten edo konpainiak erabiltzen dituen zerbitzuak errazten | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | dituzten hornitzaileek eginikoak.<br>Datuaren kalkulua: Datua lortzen da Kutxabankek (aholkularitza ez-independentea) banatutako inbertsio-fondoak inbertituta dauden tresna guztien 3. eremuko isuri absolutuen baturatik ($CO_2$ tona baliokideetan adierazita). | |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da 44.963 tona $CO_2$, aurreko urtean baino % 9,58 gutxiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Estaldura: % 37,2 vs % 14,54 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 155,85 igo da. | |
| | | BEG isuriak, guztira | 495.756,08 | 527.539,31 | BEG isuriak, guztira: Aurrekoen baturatik sortzen da.<br>Datuaren kalkulua: Datua lortzen da aurreko ataletan adierazitakoen baturatik. | |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da 31.783 tona CO2, aurreko urtean baino % 6,02 gutxiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 37,2 vs % 14,55 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 155,67 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2. Karbono-aztarna<br><br>(tCO2e/milioi EUR) | Karbono-aztarna | 454,79 | 597,42 | Datuaren kalkulua<br>Datuak adierazten du berotegi-efektuko gasen isuri guztien batezbesteko haztatua (1., 2. eta 3. eremuak), zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den enpresek sortuak, CO2 tona baliokideetan adierazita, konpainiaren egungo balioaren artean (milioi eurotan neurtuta). | |
| | | | | | Datuaren bilakaera:<br>Adierazle hau murriztu egin da 143 tona CO2, aurreko urtean baino % 23,87 gutxiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 37,2 vs % 14,55 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 155,67 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3. Inbertitzen den enpresetako BEG intentsitatea<br><br>($tCO_2e$/milioi EUR, inbertitutako enpresaren sarrerak) | Inbertitzen den enpresetako BEG intentsitatea | 620,62 | 797,86 | Datuaren kalkulua. Datuak adierazten du berotegi-efektuko gasen isuri guztien batezbesteko haztatua (1., 2. eta 3. eremuak), zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den enpresek sortuak, $CO_2$ tona baliokideetan adierazita, konpainiaren salmenten artean (milioi eurotan neurtuta). | |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da 177 tona $CO_2$, aurreko urtean baino % 22,21 gutxiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 45,02 vs % 21,68 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 107,66 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4. Erregai fosilen sektoreko enpresa aktiboekiko esposizioa<br><br>(%) | Erregai fosilen sektoreko enpresa aktiboetan eginiko inbertsioen proportzioa | 1,94 | 1,47 | Erregai fosilak: Karbonotik eratorritako energia-iturri berriztaezinak dira; hala nola erregai solidoak, gas naturala eta petrolioa.<br>Erregai fosilen sektoreko konpainia aktiboak: Sarrerak lortzen dituzte erregai horien prospekziotik, meatzaritzatik, erauzketatik, ekoizpenetik, eraldaketatik, biltegiratzetik, fintzetik edo banaketatik, garraioa, biltegiratzea eta merkaturatzea barne.<br>Datuaren kalkulua: Datuak neurtzen du erregai fosilen sektoreko konpainia aktiboetan zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitutako kudeaketapeko aktiboen ehunekoa. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da % 0,47, aurreko urtean baino % 31,97 gehiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 50,4 vs % 25,02 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 101,44 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5.1 Energia berriztaezinaren kontsumoaren proportzioa<br><br>(%) | Energia berriztaezinaren kontsumoaren proportzioa inbertitzen den enpresetan, energia-iturri berriztaezinetatik datorrena, energia-iturri berriztagarriekin alderatuta (proportzioa energia-iturri guztiekiko) | 48,46 | 58,69 | Energia iturri berriztagarriak: Barne hartzen ditu fosilak ez diren iturri berriztagarriak; hau da, energia eolikoa, eguzki-energia (termikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa) eta energia geotermikoa, ingurumen-energia, mareen energia, olatuen energia eta beste energia ozeaniko mota batzuk, energia hidraulikoa eta biomasatik datorren energia, zabortegiko gasak, hondakin-uren araztegietako gasak eta biogasa.<br>Beraz, gainerako energia-iturriak hartzen dira "energia-iturri berriztaezintzat".<br>Datuaren kalkulua: Datuak adierazten du zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainien energia berriztaezinaren | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | ekoizpen- eta kontsumo-ehunekoen batezbesteko haztatua. | |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da % 10,23, aurreko urtean baino % 17,43 gutxiago. | |
| | | | | | Estaldura: % 34,29 vs % 16,48 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 108,07 igo da. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5.2 Energia berriztaezinaren ekoizpenaren proportzioa<br><br>(%) | Energia berriztaezinaren ekoizpenaren proportzioa inbertitzen den enpresetan, energia-iturri berriztaezinetatik datorrena, energia-iturri berriztagarriekin alderatuta (proportzioa energia-iturri guztiekiko) | 16,46 | 20,94 | Datuaren bilakaera: Adierazle hau murriztu egin da % 4,48, aurreko urtean baino % 21,39 gutxiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 12,63 vs % 5,91 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 113,71 igo da. | |
| | 6. Energia-kontsumoaren intentsitatea, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera<br><br>(GWh/milioi EUR) | Energia-kontsumoa GWh-tan, inbertitzen den enpresen diru-sarreren milioi EUR bakoitzeko, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera | NACE A sektorea: 2,74 | NACE A sektorea: 1,23 | Energia-kontsumoaren intentsitatea, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera: Ratio bat da, inbertitzen den enpresaren jarduera, produktu edo beste edozein parametro unitateko energia kontsumoaren eta enpresa horren guztizko energia-kontsumoaren artekoa.<br>Datuaren kalkulua: | |
| | | | NACE B sektorea: 1,59 | NACE B sektorea: 1,25 | | |
| | | | NACE C sektorea: 2,49 | NACE C sektorea: 2,92 | | |
| | | | NACE D sektorea: 2,36 | NACE D sektorea: 2,99 | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | NACE E sektorea: 0,77 | NACE E sektorea: 0,64 | Datua lortzen da klima-inpaktu handiko sektoreekiko esposizioaren batezbesteko haztatuen baturatik. Sektore horiek dira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza; erauzketa-industriak; manufaktura-industria; energia-hornidura; ur-hornidura; eraikuntza; motordun ibilgailuen handizkako eta txikizkako merkataritza eta konponketa; garraioa eta biltegiratzea; eta ostalaritza. | |
| | | | NACE F sektorea: 0,11 | NACE F sektorea: 0,19 | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da % 0,06, aurreko urtean baino % 60 gehiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | NACE G sektorea: 0,16 | NACE G sektorea: 0,1 | Estaldura: % 2,49 vs % 0,64 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 289,06 igo da. | |
| | | | NACE H sektorea: 1,26 | NACE H sektorea: 1,47 | Metrika honi buruzko oso informazio gutxi dago; beraz, haren balioa ez da oso adierazgarria. Kutxabankek (aholkularitza ez-independentea) beste informazio-iturri batzuk aztertu ditu 2023an, estaldura handiagoa lortzeko etorkizunean. | |
| | | | NACE L sektorea: 0,35 | NACE L sektorea: 0,48 | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Biodibertsitatea | 7. Biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan eragin negatiboa duten jarduerak<br><br>(%) | Egoitza edo eragiketak biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan edo eremu horietatik gertu dituzten enpresetan egindako inbertsioen proportzioa, enpresa horien jarduerek eragin negatiboa dutenean zona horietan. | 1,78 | 1,35 | Biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan eragin negatiboa duten jarduerak<br>Jarduera hauen ezaugarriak dira (i) habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea eta eremu babestu izendatzea eragin zuten espezieei kalte egitea, eta (ii) habitat horietan ez aplikatu izana EBren araudiaren edo haren baliokideak diren nazio-xedapenen edo nazioarteko arauen araberako ondorio, arintze-neurri edo inpaktu-ebaluaziorik.<br>Honako hauek dira "dibertsitateari dagokionez sentikorrak diren eremuak": eremu babestuen Natura 2000 sarea, Unescoren Munduko Ondarearen guneak eta Biodibertsitaterako Funtsezko Eremuak (Key Biodiversity | **<u>Bazterketak</u>**<br>Kutxabank Gestionek ez du inbertitzen arma eztabaidagarrien (pertsonen aurkako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimikoa edo biologikoa...) ekoizpenarekin lotutako errenta finkoko eta aldakorreko aktiboetan, edo beren jardueran muturreko ingurumen-kaltea eragiten duten enpresen aktiboetan. Gainera, ez du inbertitzen ere ustelkeria larriko jardunbideekin, adingabeen esplotazioarekin edo norbanakoen eskubideen urraketarekin zerikusia duten erakunde jaulkitzaileetan, ez eta egoitza paradisu fiskaletan dutenekin ere. Baztertu diren errenta finkoko eta aldakorreko jaulkitzaileen jarraipena egiten da, sozietatearen bazterketa-politikaren irizpideen egokitasuna berresteko. Era berean, monitorizatu egiten dira aktiboetan gerora gertatutako ez-betetzeak, horietan desinbertitzeko, egindako azterketatik hala ondorioztatzen bada.<br>Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baztertu egin dira ere IGG eztabaida larriak dituzten konpainiak: 5. maila, hobetzeko aurreikuspenik gabe, eta 4. maila, outlook negatiboarekin (1etik 5era bitarteko eskalan, larritasun txikienetik handienera).<br>Ekitaldia ixteko datan, kudeatzaileak baztertzen zituen: |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Areas, KBA), bai eta EBren araudian jasotako beste eremu babestu batzuk ere. Datuak adierazten du biodibertsitatea kaltetzen duten konpainietan zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitutako kudeaketapeko aktiboen ehunekoa. | • Jaulkitzaile subiranoak (herrialdeak): 48 jaulkitzaile baztertuak (herrialdeen % 25)<br>• Jaulkitzaile pribatuak: 578 jaulkitzaile baztertuak (aztertutako enpresen % 4,53)<br><br>**Jaulkitzaileen ebaluazioa IGG gaietan**<br>Sozietateak erabiltzen du *best in class* metodologia bat inbertsioak aukeratzeko, adierazle batzuetan oinarrituta. Horretarako, IGG ratinga esleitzen die inbertitzen duen edo inberti dezakeen jaulkitzaileei. Horrela, sozietate kudeatzaileak aztertzen du jaulkitzaileen jarduera adierazle-sail batean, eta pisu desberdina ematen die adierazle horiei, sektorearen arabera. Adierazle horien artean daude: 3. KGN "Inbertitzen den enpresen BEG intentsitatea"; 8. KGN "Uretara eginiko isuriak"; 9. KGN "Hondakinak"; 13. KGN "Genero-aniztasuna zuzendaritza-taldean"; eta borondatezko 3. KGN "Istripuengatik galdutako egunak".<br><br>**Eztabaidak kudeatzea**<br>IGG eztabaidak kudeatzea (Sustainalytics-en albisteen eta |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da % 0,43, aurreko urtean baino % 31,85 gehiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | eztabaiden bidez nagusiki). Sozietatearen prozeduren barruan, eztabaidak kudeatu dira hileko txostenen bidez, eta txosten horien ondorioz, monitorizatu egin dira 4. eta 5. mailako eztabaidak (1etik 5erako eskalan, larritasun txikienetik handienera). Aurreikuspen negatiboko 4. maila edo aurreikuspen egonkorreko 5. maila duten eztabaiden kasuan, baztertu egin da konpainia inberti daitekeen konpainien multzotik. |
| | | | | | Estaldura: % 50,41 vs % 25,02 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 101,48 igo da. | |
| Ura | 8. Uretara eginiko isuriak<br><br>(isuri tonak/milioi EUR) | Inbertitzen den enpresek uretara isuritako tonak, inbertitutako milioi EUR bakoitzeko (batezbesteko haztatua). | 0,09 | 0,08 | Uretara eginiko isuriak: EBko erakunde eskudunek lehentasunezkotzat dituzten substantzia kutsatzaileen zuzeneko isuriak eta nitrato, fosfato eta plagiziden zuzeneko isuriak dira.<br>Datuaren kalkulua: Datuak adierazten du zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainiek uretara egindako isurien batezbesteko haztatua, neurtuak inbertitutako milioi EUR bakoitzeko. | **<u>Elkarrizketa eta botoa</u>**<br>Kutxabank Gestion SGIICren eskubide politikoak gauzatzeko politika kokatzen da aipatutako betebehar fiduziarioaren barruan, betiere ordezkatzen den partaidearen interesaren defentsan. Eskubide politiko horiek baliatzean, kontuan hartuko dira bai gai ekonomikoak bai GIA irizpideak (sozietate kudeatzailearen Gizartearekiko Inbertsio Arduratsurako politika orokorrean definituak). Politika hori aplikatuko zaie ere kudeaketapeko zorro delegatuei (BGAE eta pentsio-fondoak batez ere), baldin eta beren jarduera sozietate kudeatzailearen esku utzi badute, edo, bestela, gomendio gisa erabiliko da, |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da % 0,01, aurreko urtean baino % 12,5 gehiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | dagokien gobernu-organoei, kudeaketa delegatuko gainerako zorroetan.<br>Oro har, boto-eskubideak gauzatzen dira akzioen gordailuzainak horretarako ezarritako bideen bidez. Kontrako botoa egonez gero Akziodunen Batzar Nagusien gai-zerrendako gai baten inguruan, horren berri ematen zaio dagokion konpainiari, posta elektroniko bat igorrita, botoaren zentzua justifikatuta. Gainera, boto-aholkulari bat dago (proxy advisor), inbertitzaile instituzionalei (hala nola sozietate kudeatzaileari) botoa gomendatzen espezializatutako enpresa, aldeko edo aurkako botoa, Akziodunen Batzar Nagusien gai-zerrendako puntuetan landuko diren gaien ingurukoa.<br>Botoa emateari dagokionez, Akziodunen Batzarren gai-zerrendako puntuek ez badute ere espezifikoki jasotzen kontrako gorabehera nagusien adierazlerik, aipatutako irizpideek korrelazio handia dute horietako askorekin. Aipatzekoak dira:<br>Aipatutako kontrako gorabehera |
| | | | | | Estaldura: % 5,59 vs % 2,12 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 163,68 igo da. | |
| | | | | | Metrika honi buruzko oso informazio gutxi dago; beraz, haren balioa ez da oso adierazgarria. Kutxabankek (aholkularitza ez independentea) beste informazio-iturri batzuk aztertu ditu 2023an, estaldura handiagoa lortzeko etorkizunean. | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hondakinak | 9. Hondakin arriskutsuen eta erradioaktiboen ratioa<br><br>(tona hondakin arriskutsu/milioi EUR) | Inbertitzen den enpresek sortutako hondakin arriskutsuen eta erradioaktiboen tonak, inbertitutako milioi EUR bakoitzeko (batezbesteko haztatua) | 3,27 | 1,60 | Hondakin arriskutsuak edo erradioaktiboak: Hondakin arriskutsuen edo erradioaktiboen kalifikazioa EBren araudian zehaztuta dago.<br>Datuaren kalkulua: Kalkuluak adierazten du zuzenean edo zeharka (IKE bidez) inbertitzen den konpainiek sortutako hondakin arriskutsuen eta erradioaktiboen batezbesteko haztatua, inbertitutako milioi euro bakoitzeko tonatan neurtuta. | nagusiak minimizatzen dituzten alderdien alde, ustelkeriaren aurka borrokatzeko politika gisa; klima-trantsizioaren eta ingurumen-babesaren aldeko ingurumen-arloko nahitaezko KGNen minimizazioa (1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. KGNak: “BEG isuriak”, “Karbono-aztarna”, “BEG intentsitatea”, “Erregai fosilen sektoreko enpresa aktiboekiko esposizioa”, “Energia berriztaezinaren ekoizpenaren eta kontsumoaren proportzioa”, “Energia-kontsumoaren intentsitatea, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera”, “Biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan eragin negatiboa duten jarduerak”, “Uretara eginiko isuriak”, “Hondakin arriskutsuen eta hondakin erradioaktiboen ratioa”...), bai eta borondatezko 4. KGN ere: “Parisko Akordiora egokitzearren, karbono-isuriak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehunekoa”… |
| | | | | | Datuaren bilakaera: Adierazle hau areagotu egin da % 1,67, aurreko urtean baino % 104,38 gehiago; hala ere, kudeatutako ondarea % 41,43 handitu da 2023an. | |
| | | | | | Estaldura: % 33 vs % 15,19 aurreko urtean; hau da, datuen estaldura % 117,25 igo da. | |

| LAN- ETA GIZARTE-GAIEI, GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUARI ETA USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO ADIERAZLEAK | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
